

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	HODI INDUSTRIALAK FABRIKATZEKO ETA MUNTATZEKO ESPEZIFIKAZIOAK	Iraupena	30
		Espezifikoa	
Kodea	UF0874		
Lanbide-arloa	FABRIKAZIO MEKANIKOA		
Lanbide-eremua	Eraikuntza metalikoak		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Hodi industrialen diseinua	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Hodi industrialen instalazioen diseinua.	Iraupena	130
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Hodiak diseinatzea instalazioak fabrikatzeko eta muntatzeko.	Iraupena	70
	Hodi industrialen proba- eta entsegu-plana.	Iraupena	30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1150_3ko LB3 lanbide-burutzapenarekin: HODI INDUSTRIALEN INSTALAZIOAK DISEINATZEA

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Hodi industrialak fabrikatzeko ebaketa-, konformazio- eta mekanizazio-espezifikazioak prestatzea, kalitate-arauak eta laneko eta inguruneko arriskuak prebenitzeko arauak betez.

EI1.1 Ebaketa-motak (mekanikoa, oxigasa, plasma) identifikatzea eta haien ezaugarriak zehaztea: eskuzkoak, erdiautomatikoak eta automatikoak.

EI1.2 mekanizazio-motak identifikatzea eta haien ezaugarriak zehaztea (ertzak alakatzea, estrusionatzea, ahozabaltzea eta izurtzea).

EI1.3 Lotura hariztatu motak bereiztea (BSP, NPT, metrikoa, besteak beste).

EI1.3 Hodi industrialeko instalazio bat fabrikatzeko argibide orokorrak ematen diren kasu praktiko batean:

- Ebaketa- eta konformazio-zerrenda egitea, fabrikazioko isometrikoak oinarri hartuz.
- Hodiaren mekanizazioak zehaztea, kontuan hartuz soldatua, hariztatua edo beste era batera joan behar duen.

Edukiak

1. Hodi industrialeko mekanizazioa eta konformazioa.

- o Loturak prestatzeko mekanizazio-eragiketak:
 - Estrusionatzea.
 - Ertzak alakatzea.
 - Ahozabalketa.
 - Izurketa.
- o Hodi industrialen konformazio- eta kurbadura-eragiketak.
 - Konformazioa eta kurbadura hotzean eta beroan.
 - Motak eta ezaugarriak.
- o Hodi industrialen ebaketa.
- o Oxiebaketa-ekipoa:
 - Ezaugarriak.
 - Osagaien deskribapena.
- o Plasma-arku bidezko soldadurarako ekipoa:
 - Ezaugarriak.
- o Ebaketa mekanikoa:
 - Trontzatzeko makina.
 - Zizaila.

2. Hodi industrialetako lotura soldatuak.

- o Soldadura-prozedurak:
 - Elektrodo bidezko soldadura: soldadura-ekipo elektrikoak: osagaien ezaugarriak eta deskribapena.
 - Soldadura erdiautomatikoa (MIG-MAG): soldadura erdiautomatikorako ekipoa, ezaugarriak, osagaien deskribapena.
- o TIG soldadura:
 - TIG soldadurarako ekipoa.
- o Kapilaritate bidezko soldadura:

- Ezaugarriak.
- Erresistentzia bidezko soldadura esparragoetarako:
 - Ezaugarriak.
 - Osagaien aplikazioa eta deskribapena.
- Plastikoak soldatzea.
- Soldadura-kordoen motak.
- Karga estatiko eta aldakorren eraginpean jarritako lotura soldatuen kalkulu praktikoa:
 - Antolamendu orokorrak.
 - Angelu-soldadura. Ezaugarriak.
 - Topekako soldadura. Ezaugarriak.
- Arauak eta taulak aplikatzea lotura soldatuetan.
- Deformazioak eta tentsioak lotura soldatuetan. Deformazioak zuzentzea.

3. Hodi industrialetan erabilitako beste lotura-mota batzuk.

- Lotura itsatsiak:
 - Itsasgarri-motak.
 - Lotura itsatsien ezaugarriak.
 - Osagaiak eta haien aplikazioa.
 - Lotura itsatsien kalkulu praktikoa.
 - Arauak eta taulak aplikatzea lotura itsatsietan.
- Lotura torlojutuak:
 - Torloju arruntak, kalibratuak eta erresistentzia handikoak.
 - Lotura torlojutuen ezaugarriak.
 - Lotura torlojutuen kalkulu praktikoa.
 - Arauak eta taulak aplikatzea lotura torlojutuetan.

C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-erlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Hodi industrialen diseinua.